

IURA VASCONIAEren XXIII. sinposioa:

Baskonia eta nazioarteko harremanak historian zehar. Itunak, diplomazia, historia eta zuzenbidea

2025ko urtarrilaren 23a eta 24a

Lekua: Bilbao AS Fabrik campusa (Mondragon Unibertsitatea)

Arlo publikoko nazioarteko harremanen formalizazio juridikoa, modernitatean, Estatuak sortu eta kudeatutako esparrura mugatu da. Modernitatearen proiektuan, Estatuak dira nazioarteko harremanen arloko gaitasunaren hartzaileak, alderdi publikoan, bederen. Eredu horri jarraituz, Estatuak formaliza ditzakete nazioarteko zuzenbideak aratutako akordioak eta sortu ditzakete itun bidezko betebeharrak (*ius contrahendi*), eta Estatuak bakarrik erlaziona daitezke mailarik gorenean berdintzat jotzen dituzten ordezkariak diplomatikoen bidez (*ius legationis*). Estatuak bakarrik Nazioarteko Justiziako Auzitegi Iraunkorraren definizio zaharraren arabera, nazioarteko zuzenbide publikoak «estatu independenteen arteko harremanak arautzen ditu» (Lotus kasua, 1927); bada, Estatuak bakarrik parte har dezake horretan.

Nolanahi ere, historia eta praktika aberatsagoak eta malguagoak izan dira eta dira eta aniztasunera eta anbiguotasunera irekiagoak egon dira eta daude. Sinposio honetan ikasiko dugunez, nazioarteko harremanak Baskoniako zuzenbidearen historiaren parte dira, itun, akordio, bake eta askotariko adostasun diplomatikoren bidez. Horietan, edo zuzenean parte hartu dute herrialdeko eragile publikoek, edo haiei eragin diete.

Gaur egungo itun kontzeptua errealitate heterogeneo horri aplikatzea arazotsua izan daiteke. Hala egiten badugu, jakin behar dugu termino hori baliatuta gaur egun beharrezkotzat ditugun eta, nolanahi ere, zentzu zabal eta malgu batean aintzat hartzen ditugun esanahi ugari bazter uzten ditugula. Itunen zuzenbideari buruzko Vienako konbentzioetan (1969koa eta 1986koa) jasotako definizioek eta kategoriek balio behar digute paralelismo oso askeekin baino ez begiratzeko atzera.

Hasteko, garaiko nazioarteko komunitateko beste subjektu batzuekin nazioarteko ordezkariak, akordio edo itunak beren kabuz eta beraiantzako, berdintasunean, ezartzeko gaitasunak gauzatu zituzten zenbait lurralderen adibideak berrikusiko ditugu. Ez da kasualitatea kasu horiek urrunagoko garaietakoak izatea. Ondoren, kontzertu europarreko erreinuek edo nazioek sinatu zituzten eta Baskoniari eragin zioten garai modernoko zenbait itun aztertuko ditugu: Espainiako eta Frantziako erreinen arteko muga-hitzarmenak adibide nabarmenak dira. Azkenik, Baskoniako erakunde politikoen nazioarteko harremanen edo are gobernantza multilateralaren arloetan parte hartzeko zereginak egin dituzten egoera garaikideagoak aztertuko ditugu.

Kontua ez da sartu ez ditugun eta aitzat hartzeko modukoak izango liritekeen kasu interesgarriak jositako gai bat agortzea; aitzitik, multzoaren ikus-

pegi askotariko bat izan nahi dugu Baskoniaren zuzenbide publikoaren arloko nazioartekotzeari buruz, dena delako garairenean araberako espezifikotasun ugariak barne hartuta.

Sinposioan batzorde zientifikoak aurretik onartutako komunikazioetarako lekua egongo da; azken saioan irakurri ahal izango dira. Iura Vasconiae aldizkariak argitaratuko du sinposioa.



9:00-9:15	Hasierako saioa: 9:00-9:15. Ongietorria, aurkezpena eta helburuak Ongietorria: Nagore Ipiña, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekanoa. Sinposioaren aurkezpen orokorra: Roldán Jimeno, Iura Vasconiaeren lehendakaria. Helburuen eta dinamikaren aurkezpena: Mikel Mancisidor, sinposioaren zuzendaria.	
LEHENENGO SAIOA. Moderatzailea: Gregorio Monreal		
9:15-9:45	Akordioak, itunak, tratatuak eta nazioartekotasuna nazioarteko zuzenbidearen historian. Baskoniaren historiarako irakurketa bat.	Mikel Mancisidor <i>U. Deusto eta Mondragon U.</i>
9:45-10:15	Erdi Aroko Nafarroako nazioarteko irunak (c. 715-1488).	Roldán Jimeno, <i>UPNA/NUP</i>
10:15-10:45	Frantzisko I.aren eta Karlos V.aren arteko Calaiseko negoziazioak (1521eko uztailetik azarora), Henrike VIII.a bitartekari zela, Nafarroako Gerraren testuinguruan.	Peio Monteano, <i>Nafarroako Errege Arxibo Nagusia</i>
10:45-11:15	Kafea, AS Fabriken (MU) partetik	
BIGARREN SAIOA. Moderatzailea: Roldán Jimeno		
11:15-11:45	Muga- eta bake-itunak Gipuzkoaren konfigurazioan, Erdi Arotik Austriako Etxera.	José Ángel Achon, <i>Deustuko Unibertsitatea</i>
11:45-12:15	Nazioarteko mugak Baskonian eta itunak.	Igor Filibi, <i>UPV/EHU</i>
12:15-12:45	Nabigatzaileen korporazioak euskal itsas munduan: arrantzaleen kofradiak, merkataritza-konpainiak, kontsulatuak.	Margarita Serna, <i>Kantabriako Unibertsitatea</i>
12:45-13:15	Espainiako probintzia batuak. Euskal Herria iraultzen Europan (1789-1815).	Andoni Artola, <i>UPV/EHU</i>
13:30-15:00	Bazkaria, kafea eta atsedena AS Fabriken	
HIRUGARREN SAIOA. Moderatzailea: Itziar Alkorta		
15:00-15:30	Itun ekonomikoak gerra-garaietan (conversa direlakoak).	María Rosa Ayerbe, <i>UPV/EHU</i>
15:30-16:00	San Ignazio eta San Frantzisko Xabierkoa. Lehen jesuitak eta ikuspegi/xede nagusia XVI. mendean.	Jose María Guibert, <i>Comillasko Pontifize Unibertsitatea</i>
16:00-16:30	Vatikanoko artxibo eta liburutegietako euskal iturriak, itun, akordio eta diplomazia aztertzeko.	Marta Pavón Ramírez, <i>Artxibozain nagusia, Mariaren Lagundiaren ordena, Erroma. Elizaren Historiaren Institutu Espainiarra (Italia)</i>
16:30-17:00	Kafea, AS Fabriken (MU) partetik	
LAUGARREN SAIOA.		
17:00-17:30	Nazionalismo kosmopolita? Eusko Jaurlaritzaren lehen erbestea (1937-1946).	Ludger Mees, <i>UPV/EHU</i>
17:30-18:00	Europar Batasuna. Sortze-testuen euskal irakurketa.	Juanjo Álvarez, <i>UPV/EHU</i>
BOSGARREN SAIOA. Moderatzailea: Nagore Ipiña, MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa		
9:00-9:30	Kanpo-jarduera 78ko Konstituziotik gaur egunera arte. Zuzenbidea eta egitateak Konstituzio Auzitegiaren 165/1994 Epaiaeren ondoren.	Josu Erkoreka, <i>Deustuko Unibertsitatea / Bizkaiko Foru Aldundia</i>
9:30-10:00	Mugak itxuragabetzea. Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde-lankidetzeta Europar Batasunean.	Alicia Chicharro, <i>NUP</i>
10:00-10:30	Foru-ogasunak eta Europako itun eta erakundeak.	Mikel Erkoreka, <i>Erakundeen Baliabideetako zuzendaria (Eusko Jaurlaritza)</i>
10:30-11:00	Kafea, AS Fabriken (MU) partetik	
SEIGARREN SAIOA (AZKENA).		
11:00-11:30	Ingurune postmugakideak. Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdea: oinarri juridikoak eta instituzionalak.	Arola Urdangarin, <i>Euroeskualdearen zuzendaria</i>
11:30-12:00	UNESCO eta Baskonia. Harreman politiko, juridiko, sozial eta kultural baten historia. José Miguel Azaolatik eta Alberto Onaindiatik ulermen-memorandumetara (1945-2024).	Aran Acha, <i>UNESCO Etxearen zuzendaria</i>
12:00-12:30	Amaierako hitzaldia.	
12:30-13:30	Saio gehigarria: Moderatzailea: Rosa Ayerbe. Hamar minutuko komunikazioak.	
AMAIERAKO SAIOA:		
13:30-13:45	Amaiera: Roldán Jimeno eta Mikel Mancisidor.	
14:00-15:00	Bazkaria AS Fabriken	



BATZORDE ZIENTIFIKOA

Lehendakaria:

Mikel Mancisor, Nazioarteko Zuzenbideko eta Nazioarteko Harremanetako irakaslea
(Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea)

Batzordeko Idazkaritza:

Rosa Ayerbe Iribar, Zuzenbidearen Historiako irakasle erretiratua (UPV/EHU)

Itziar Alkorta Idiakez, Zuzenbide Zibileko irakasle titularra (UPV/EHU)

Juan José Álvarez, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuako katedraduna (UPV/EHU)

Alicia Chicharro, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko eta Nazioarteko Harremanetako irakaslea (NUP)

Roldán Jimeno, Zuzenbidearen Historiako katedraduna (NUP)

Gregorio Monreal, Zuzenbidearen Historiako katedradun erretiratua (NUP)

Komunikazioak bidaltzea:

Komunikazio-proposamena egiteko, abstract bat bidal daiteke iuravasconiae@iuravasconiae.eus helbidera.
XXIII. sinposiorako bidalketa-data 2025ko urtarrilaren 17a da

IZEN-EMATEA Buletina

Osteguna, urtarrilak 23, 9.00 - 18.00

Ostirala, urtarrilak 24, 9.00 - 15.00

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2025ko urtarrila 21

HARREMANETAN JARTZEKO: iuravasconiae@iuravasconiae.eus

IZEN ABIZENA

TELEFONOA

HELBIDEA

HIRIA

K.P.

e-mail

IKASLEA

IRAKASLEA

PUBLIKO OROKORRA

TOKIA:

**Campus Bilbao AS Fabrik
Mondragon Unibertsitatea
Olagorta Kalea, 26. Zorrozaurre
48014 Bilbo**

Antolatzailea: / Organiza:



Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia
Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa

Laguntzailea / Colabora:

